

## KARRANTZAKO GIDA

Karrantza Harana, Enkarterrietako mendebaldean kokatua, Bizkaiko haranik handiena da, ia 138km<sup>2</sup>-ko azalerarekin.



Haran osoan banatuta, 16 kontzeju edo parrokiatan biltzen diren 49 auzoa daude. Udalerriko administrazio-gunea Kontzan dago, haraneko erdialdean dagoen auzoa, alegia. Iparraldean eta mendebaldean Kantabriarekin mugatzen du eta hegoaldean Burgoseko udalerriarekin.

Mendiz inguratua, eraketa orografiko gorabeheratsu samarra dago; izan ere oso espazio txikia dago leku laueterako. Haraneko hego-mendebaldean, Ordunteko mendietan kokatzen dira tontorrik altuenak, non Zalamako gailurra nabarmentzen den, 1.336 metrorekin.



Ezaugarri guzti horiek, Karrantza natura eta kirolaren bidez

ezagutzeko aukera ematen digu, haranak eskaintzen dituen ibilbide ugarien bidez.



Landaredia da Karrantzaren ondarrerik berezietariko bat. Haranak, landare bio-aniztasun handia du eta bertako baso-ondarearen zati handi bati eustea lortu du: Artadiak, pagadiak eta hariztiak berebiziko edertasun bazterretan daude.



Haraneko orografia berezian eta hurak estaltzen duen landaredian, oso fauna basati anitza babesten da. Nabarmentzen dira, behi montzinak, pottoka arrazako zaldiak edo sai zuhariak eta sai arreak. Bertako arrazen katalogoa osatzeko, Karrantzako aurpegi zuriko eta aurpegi beltzeko ardiak eta txakur bilauak aipatuko ditugu.

Ondare zibilari dagokionez, dorretxe, jauregi eta herri arkitektura nabarmentzen da. Azken horretan, oinplano angeluzuzeneko baserria dugu, "pipianoen" artean dauden balkoi luzeak eta "moriska" dituen baserria hain zuzen ere.



Aipamen berezia merezi du Indianoen Arkitekturak.

XIX. mendearen hasieran, Indianoen Mugimendua bezala ezagutzen den mugimendu migratzailea sortu zen.

Oso familia pobretan jaio ziren gazteak ziren, zeinek beste herrialdetara joateko erabakia hartzen zuten, etorkizun hobeto baten bila. Gehienek Ameriketara joaten ziren. Jaioterrira bueltatzean, gehienek aberats berrien moduan

jokatzen zuten; etxebizitza izugarriak eraikitzen zuten, janzkera dotorea zeramaten, bitxiak eta luxuetarako zaletasun handia.

Indianoen mugimenduak utzi zuen aztamarik ikusgarriena, etxebizitzak izan ziren, bereziki XIX. mendearen bukaeran eta XX. Mendearen hasieran eraiki zirenak.



Karrantzan dagoen ondare erlijiosoa aberatsa eta askotarikoa da. eraikuntzetan begi-bistakoak dira estilo ezberdinak.



Gastronomia gure haranaren ohituretan sendotuta dago. Bertako Karrantzako ardiak, historian zehar artzain familia handiak eratu ditu. Gizonek, artzainaren zeregin zakarren arduradunak ziren: zainketa, trashumantzia, jeztea... Baina horiez gain, emakumeek beti izan dute pisu nabargarria landa munduan.

Betidanik emakumeak izan dira gazta egiten zutenak. Ez hori bakarrik; gure plater tipikoa, ardi gisatua ere, bere kasa egiten zuen.

Gaur egun, El Sucesoko Gure Ama Birginaren Jaiak direla eta, urtero ospatzen da Euskadiko Ardi Gisatuaren Txapelketa.



El Sucesoko auzoak naturarekin bat egiten duen multzo ederra osatzen du.

El Sucesoko Ama Birginia, zezen plaza, kapera eta aisialdirako guneaz osatutako multzoa, hain zuzen. Bere begiratokia ahaztu gabe, haran guztiaren ikuspegi paregabeaz gozatzeko.



Karrantza

Karrantzako baliabide turistikoak espazio oso desberdinak ezagutzeko aukera ematen digu, istorio oso ezberdinekin baina benekotasun eta identitate berdinarekin.

### BBK Karpin Fauna

Indianoena izan zen baserri zahar batean dagoen animalia basatien aterpea da. Bere barruan, erdi-askatasunean, 55 animalia espezie desberdin bizi dira. Gainera, ibilbideak dinosauroen gunetara eramaten duen tematiko batez gozatzeko aukera ematen dio bisitariari.



### Andrés Deunaren Antzinako Eliza

Biañez auzoko Andrés Deunaren eliza zaharrean, Kantauri isurialdeko erretaula margotu errenazentista handienetariko bat ikus daiteke. Bestalde, egiten diren bisitaldi gidatuetan, indianoek bere jaiotze-herrien garapenean duten eragina ezagutzen da ere.



### Armañon Parke Naturala

Leku gutxietan agertzen da natura Armañon Parke Naturalean bezain bikain. Bere tontor eta mendien artean, bide, baso eta berrehun haitzulo baino gehiago zabaltzen dira. Interes ornitologiko handiko lekua da.

Armañon Enkarterriko harri bitxitariko bat da. Parkea Turtzioz eta Karrantza udalerrien artean dago eta aberastasun ekologiko handiko paisaia karstikoak ditu ezaugarri.



Armañongo Parke Naturaleko kokagune berezietariko bat Pozalaguako Auditorioa da. Donosa harrobi zaharraren espazioan egokituta eta mendian zizelkatuta, Auditorio honek akustika bikaina du. Hainbat urtez espazioa egokitu ondoren, naturgune ezin hobea geratu da eszenatokikoaren sonoritate paregabea, argiekin eta Armañon Parke Naturaleko mendigune karstikoek markatutako hondoko oihalarekin konbinatzeko. Urtero, uda garaian, Pozalagua Jaialdia antolatzen da hemen.



### Pozalagua Kobazuloa

Kobazulo honen historian murgiltzeko, 50eko hamarkadara lekualdatuko gara. Armañon Parke Naturalaren bihotzean, Raneroko Haitzaren azpian, Donosa harrobiak dolomia minerala erausten zuen, bere dinamita barrenoak ustiaraziz, eta espero gabe, Pozalaguako aurkikuntzaren egile bihurtu zen. Haitzuloa ustekabean aurkitu zuten 1957ko abenduaren 28an, harrobi horretan leherketa bat izan ondoren.



Pozalagua ibilaldi laberintikoa da, estalaktitak, estalagmitak, zutabeak, banderak, gour-ak... bezalako formazio ezberdinekin.

Baina Pozalagua kobazuloa bakarra egiten duena eszentrikoen ugaritze sinestezina da, ehunka mila urtez iraun duen erabateko hermetismoarekin zerikusia duena.

Benetako ikuskizun geologiako, 2013an Repsol Gidaren Txokorik onena izendatua.

### Parketxea

Denborak aurrera egin ahala, Pozalaguako historia eta bertako Auditorioa, Parketxearen (harrobitik aterako minerala kargatzeko antzinako estazioa eta gaur egungo Armañon Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa) historia ere badira. Gaur egun, bertan, Parke Naturalaren ezaugarri nagusiak ezagutu ditzakegu eta hainbat mendi – ibilbideen inguruko informazioa eskuratu.



### Dolomitas Museoa

Donosa harrobian ateratzen zen minerala, fabrikako instalazioetara eramaten zen, Ambasaguaz auzora, aireko tranbia baten bidez.



Aireko tranbia hau 1976. urtera arte martxan egon zen azkena izan zen Bizkaian.

Dolomitasek denboran atzera egiteko aukera ematen digu, fabrikak Bizkaiko industriarentzat oso paper garrantzitsua jokatzen zuen unera eta Industria Ondarea beste era batera ezagutzeko aukera ematen digu.



Karrantza

Karrantzan bazkaltzeko edo ostatu hartzeko leku baten bila bazabiltza, hemen aurkituko dituzu gure Km0 den gastronomiaz gozatzeko eta naturan bertan ostatua hartzeko aukera ugari.

## Ostatuak

### Aingeru

Erregistro zk: K-BI-00095  
Los Lombanos auzoa, 16 (San Esteban)  
Telf.: 946.107.180 / 675.118.632  
[www.casaruralaingeru.com](http://www.casaruralaingeru.com)

Duela gutxi eraikitako etxe atsegina. Erabat hornitutako 5 logela bikoitz ditu. Gainera, beheko solairu osoan tximinia duen egongela bat du.

### Aitxitxen Etxea

Erregistro zk: E-BI-131 / E-BI-132  
Soscaño auzoa  
Telf.: 618.283.545  
Eraikuntza berriko etxebizitza da. Ostatua, beheko solairuko bi etxebizitzatan banatuta dago, alde banatan bana eta erabat hornituta daude. 3 logela ditu (ostatu bakoitzeko). Bi bainugela oso, horietako bat logelaren barruan.  
Alokairu osoa.

### Balneario Molinar "Casa Vicente Pallotti"

Erregistro zk: 010835  
Molinar auzoa  
Telf.: 946.806.002. Fax: 946.806.400  
[www.vicentepallotti.com](http://www.vicentepallotti.com)

Duela hamarkada batzuetatik hona, atsedean hartu, erlaxatu eta bainuetxeko urez gozatu nahi duten gonbidatuak hartzen ditu. Ingurune idiliko batean, mendi ederrez inguratuta, lasaitasun eta harrera ezberdina aurkitzera gonbidatzen gaitu.

### Fuenternilla

Erregistro zk: K-BI-35  
Matienzo auzoa, 30  
Telf.: 946.806.350 – 625.705.730  
[fuenternilla.blogspot.com](http://fuenternilla.blogspot.com)

Natura berean zaharberitutako baserria. 2 logela bere bainugekin eta 2 logela bainugela partekatuekin ditu. Berogailua eta tximinia, jangela eta abere propioak. Gosari eta janari tradizionala.

### Gailurretan

Erregistro zk: X-BI-0046  
Lanzasagudas auzoa, 17  
Telf.: 946.806.667  
[www.gailurretan.com](http://www.gailurretan.com)

6 logela ditu, guztiak bainugela eta giro ezberdinetan apainduak. Tximinia duen egongela handi bat du eta era guztietako liburu, aldizkari eta komikiekin osatutako liburutegia. Mahai-jokoak eta bidioteka.  
Haranera ikuspegi paregabea eta kanpoko igerilekua.



#### **Hotel Alma de Romero**

Erregistro zk: H-BI-01197

Ahedo auzoa, 25

Telf.: 946.806.869

[www.almaderomero.com](http://www.almaderomero.com)

Egunerokotasuna atzean utzi eta sentsazio berrietan biltzeko lekua, 8 logela ikuspegiekin. Gela bakoitza ezberdina da, estetika eta ezaugarri bereziekin.

Guztiak hidromasajeko bainuontzia, doako WIFI konexioa eta erosotasun gehiago dituzte.

#### **Mendi Alai**

Erregistro zk: X-BI-099

Cezura auzoa, 23

Telf.: 944005440- 678.787.256

 : Mendi Alai

[www.casaruralmendialai.es](http://www.casaruralmendialai.es)

Duela gutxi eraikitako landatze handia, ingurune natural pribilegiatuan kokatua. 4 logela estandar eta 2 junior suit hidromasaje bainuontziarekin.


Janari tradizionalako jatetxea.

#### **Amets Etxalde**

Erregistro zk: E-BI-496

Santecilla auzoa, 10

Telf.: 675713836

 : Amets Etxalde

Harrizko etxea, antzina haraneko eskola izan zena, duela urte batzuk zaharberritua baina etxe handi baten esentzia galdu gabe. Erabat hornitua dago egonaldi perfektu baterako, naturaz inguratutik, erosotasun guztiak galdu gabe.

Alokairu osoa.

#### **Baserri Salazabal**

Erregistro zk: E-BI-763

Matienzo auzoa, 20

Telf.: 686.595.924

[www.baserrisalazabal.com](http://www.baserrisalazabal.com)

Landa Etxea, txokoa, 7 logela, egongela handia eta 1.000m<sup>2</sup>-ko lorategi hesitua.

Gehienez 16 plaza.

Alokairu osoa.

#### **Caserio Erreka Ondo**

Erregistro zk: L-BI-126

Las Barcnas auzoa, 16

Telf.: 661.867350

Enkarterriko baserria da, 400 metrokoa. Bi solairu ditu eta bi logela, sukalde osoa, bainugela eta lorategia ditu.

Ingurune lasaia eta naturala.

Gehienez 6 plaza.

Alokairu osoa.

#### **Gure Naia**

Erregistro zk: KBI 00099

Ahedo auzoa, 6

Telf.: 699415944

Karrantzako erdigunetik gertu. Jangela, egongela eta lorategia. 4 logela, 12 lagunentzako edukierarekin.

Alokairu osoa.

#### **Vitori's House**

Erregistro zk: EBI01248

Ahedo auzoa, 5

Telf: 688.857.282

Duela gutxi berritutako egurrezko eta harrizko baserria, bere landa-xarma guztia gordetzen duena. Beheko solairuak 3 logela, 2 bainugela, liburutegia, egongela eta sukaldea ditu. Gainera, ostatuak haranaren ikuspegi ikusgarriak ditu eta terraza estalia, balkoia eta aterpea ere.

Alokairu osoa.

**Casa Rural Aldaetxea**

Erregistro zk: E-BI-01893

Manzaneda de Biañez auzoa, 9

Telf.: 617534071

[www.aldaetxea.com](http://www.aldaetxea.com)

2 logela, 2 bainugela, sukalde-egongela-jangela, lorategi- barbakoa gunea eta doako aparkalekua ditu.

Leku lasaia deskonektatzeko eta egun bikainak pasatzeko familian edo lagunekin.

4 lagunentzako.

Alokairu osoa.

**Vicario Etxea**

Erregistro zk: E-BI-01956

Soscaño auzoa, 28

Telf.: 626607421

[vicarioetxea.blogspot.com/](http://vicarioetxea.blogspot.com/)

Karrantzako erdigunetik gertu.

5 lagunentzako lekua du.

2 logela, egongela-jangela, 2 pertsonentzako ohe-sofa, guztiz hornitutako sukaldea, lorategia eta barbakoa.

Alokairu osoa.

**El Herrero Etxea**

Erregistro zk: H-BI-01247

Ambasaguas auzoa, 47b

Telf.: 688.972.878 – 620.176.618

Ostatu – etxea, Ambasaguas auzoaren erdian. 4 logela ditu, bainugela zabala, jangela eta sukaldearekin.

**Karrantza**  
www.karrantza.com

### Jatetxe eta Tabernak

#### **CASA GARRAS**

Concha auzoa, 6  
Telf.: 946806280  
Egile-sukaldaritza. Baserriko produktuen eta iberikoetan espezialitatea eta dastatzeko menua.  
Ardo bodega zabala.  
Sol Repsol sariak.

#### **BAR RODRI**

Concha auzoa  
Telf.: 620.606.501  
Askotariko pintxo eta razioak.

#### **BAR GRIAL**

Concha auzoa  
Telf.: 689.897.926  
Askotariko pintxoak. Enkarguzko otorduak.

#### **CASA FELISA**

La Tejera auzoa, 18  
Telf.: 94 680 60 41  
Eguneko eta asteburuko menuak.  
Enkarguzko ortoduak.

#### **BALANDRÁN**

Ambasaguas auzoa, 50  
Telf.: 94 680 65 10  
Especialitatea: plantxa, askotariko pintxoak, plater konbinatuak, pizza, bokatak eta hanburgesak.  
Janaria prestatzen dute eramateko.

#### **BAR ESTANCO FELIPE**

Ambasaguas auzoa, 16  
Telf.: 94 680 60 32  
Asteburuko menuak, razioak, oilasko erreak. Enkarguzko otorduak.

#### **ERPEAK**

Ambasaguas auzoa  
Telf.: 94 61066902  
Plater konbinatuak, bokatak, pintxoak eta razioak.

#### **BAR EL CRUCE**

Ambasaguas auzoa  
Telf.: 946806295  
Askotariko pintxoak

#### **URBIETA**

Ambasaguas auzoa  
Telf.: 690087439  
Askotariko pintxoak

#### **EL KARPIN**

Biañez auzoa, 36  
Telf.: 688662797  
Karpin Fauna barruko jatetxe-taberna.  
Bokatak eta plater konbinatuak.

#### **MENDI ALAI**

Cezura auzoa  
Telf.: 678787256  
Aldez aurreko erreserbarekin, otordu tradizionalak.

#### **BALNEARIO CASA VICENTE PALLOTTI**

Molinar auzoa, 17  
Telf.: 946806002  
Eguneko eta asteburuko menua.  
Karrantzako menuak eta taldeentzako menuak dituzte.  
Egunero zabalik, gosari, bazkari eta afarien ordutegian.

**AIZKO (Cueva de Pozalagua)**

Ranero auzoa, (Pozalagua ondoan)

Telf.: 685761223

Asteburuko menuak, plater konbinatuak eta razioak.

**GAILURRETAN**

Lanzasagudas auzoa, 17

Telf.: 94 680 66 67

Karta, razioak eta alde zurretik arreseraturiko menuak. Nazioarteko janariak eskatzeko aukera.

Aldez zurretik erreserbatu behar.

**EL BATZOKI**

Ambasaguas auzoa, 37

Telf.: 675168830

Askotariko pintxoak eta razioak.

**BESTELAKOAK**

**BAR JUANTXU**

Concha auzoa

Telf.: 669774843

Aisia

**DENDABERRI**

Concha auzoa, 31

Telf.: 605.724.797

Aisia

**PUB EL PUTXERO**

Concha auzoa

Aisia

**BAR 53**

Ambasaguas auzoa

Telf.:659541060

Aisia

**AKELARRE**

Ambasaguas auzoa

Telf.:659541060

Aisia

Karrantza